

BORDELERAKO BIDAIA

Dena hasi zen DBH 4.F-ko ikasleok kexatu ginenean, Batxilergokoek bezala, guk ere ikas-bidaia bat egin nahi genuelako. Irakasleei matraka ederra eman ostean, azkenean joatea lortu genuen. Proiektu moduan prestatu genuen. Dena antolatu ostean, aurkezpen bat egin genuen gurasoei aurreikusitakoa azaltzeko (diru kontuak, apartamentua, garraiobideak, zer eraman behar genuen...). Hori dena azaldu eta gero, gurasoak ere konbentzitu genituen. Hori lortuta, bidaia hasi genuen.

Maiatzaren 22an, astelehena, goizeko 6:30ean geratu ginen San Mameseko bus geltokian. Autobusa hartu eta Hendaian jaitsi ginen tren hartzeko. Azkenean Bordelera ailegatu ginen. Denbora eman genuen apartamentua bilatzeko! Aurkitu genuenean, mailetak utzi eta aste osorako erosketa egin genuen.

Asteartean, lorategi publikoa bisitatu genuen eta gero *Gallien* anfiteatro erromatarra, non Ikerrek azalpen txiki bat egin zuen. *Quinconces* plazara ere joan ginen eta bertan Aketzaren esku egon zen azalpena. Arratsaldean, *Chaban Delmas* zubira joan ginen; zubia pasatu eta lorategi botanikora abiatu ginen. Egun amaitu eta apartamentura itzuli ginen. Gaua ailegatu zen eta film bat ikusi genuen denok batera.

Asteazkenean, Pilateko Dunara joan ginen. Bordeleko geltokian tren hartu eta Arachonen beste autobus bat hartu genuen. Hor Iratxek hare-metari buruzko informazioa eman zigun azalpen baten bitartez. Egun osoa eman genuen han. Gauean jolas bat egin genuen: bakoitzak galdera bat idatzi zuen *post-it* batean; gero, galdera guztiak nahastu genituen eta bakoitzak bat atera zuen, ez bazuen erantzuten proba bat egin behar zuen.

Ostegunean goizez, *Pey Berland* dorrea bisitatu genuen, Gaizkaren eskutik. Ostean, katedralera joan eta barrura sartu ginen. Egun horretan Bordelen jai zen. Eliza bisitatu eta gero, *Porte Cailhau* eta *Porte Aquitaine* bisitatu genituen. Denbora librea eduki genuen eta erosketak egitera joan ginen. Gero Harrizko zubia ikusi genuen eta Maikerek aurkezpen txiki bat egin zuen. Gauean, *L'Entrecote* izeneko jatetxera joan ginen afaltzera. Entsalada, entrekota, patatak eta postrea jan genituen. Entrekota oso goxo zegoen eta oso ondo zaindu gintuzten bertako zerbitzariak. Ordubete inguru geratu ginen hitz egiten. Jatetxetik atera ginenean, Burtsako plazara abiatu ginen, non Paulak hitzaldi txiki bat egin zuen. Plazan ur-ispilu bat dago eta bertan eraikinak islatzen dira. Han ibili ginen jolasten, ume batzuk bezala.

Ostirala ailegatu zen eta pena handiz Bilbora bueltatu behar izan genuen. Bidaia ezin hobea izan zen. Oso ondo pasatu genuen, gure artean giro polita sortu zen; gainera, independenteago izateko erabilgarria izan zen. ESPERIENTZIA GOGOANGARRIA!

Leize Tellez (4.Fko ikasleen izenean)



